


JARDUNALDI EMANKORRAK IKUS-ENTZUNEZKOEN INGURUAN

Ikus-entzunezkoak bildu dira eta bilduko dira. Gordeko al dira ordea? Baiezkoa ahalbidetuko duten formulak bilatu beharra nabarmendu da jardunaldi hauetan.

Oiartzungo gune ezberdinetan, pasa den hilaren erdialdean izan ziren Soinueneak Eresbilen laguntzarekin antolatutako Herri Musikaren 12. Jardunaldiak.

Aurtengo ediziorako aukeratutako gaia *Ikus-entzunezko Bildumen Kudeaketa* izan da. Horrekin lotuta hainbat alor ukitu dira: ikus-entzunezkoen bilketarekin hasi, horien artxibatze eta katalogazioarekin jarraitu eta, azkenik, publikora helaraztea.



Turismo bulegoan erakutsi ziren Doinutegin bildutako argazki eta bideoetako batzuk. SNN

Jardunaldiak azaroaren 12an hasi ziren Oiartzungo Turismo Bulegoan azaroaren 17a arte argazki eta bideo emanaldiz osatuta zegoen erakusketa-aren aurkezpenarekin. Ikusgai jarritako materiala Doinutegi proiektuan bildutakoa izanik, Juan Mari Beltranek proiektua aurrera eraman duen taldearen izenean aurkezpen labur bat egin zuen bertaratu ziren gonbidatuen aurrean. Gonbidatu hauek Doinutegin grabatutako pertsonak edota haien ahaideak ziren.

Mintegia eta harekin lotutako mahai-ingurua azaroaren 16an, larunbatez, izan zen. Soinuenearen ondoan dagoen Auzokalte elkartearen kontzentratuta pasa zuten egun osoa hizlari zein entzuleek.

Lau hitzaldietako lehena Eresbil

zuzentzen duen Jon Baguesek eman zuen eta Euskal Herrian dauden artxibo edo bilduma ezberdinen berri eman zuen. Artxibo horien izaera ezberdinak, hartzen duten materialaren antzinatasuna, zein egoeratan dauden,... azaldu zuen.



Tabakalerako Arantza Mariskal hizketan. SNN

Hizketan hurrena Arantza Mariskal izan zen. Tabakalerako arduradun moduan ikus-entzunezkoekin lan egitean gaur egun sortzen diren aukera ugarien berri eman zuen, orain dela urte gutxira arte pentsa ezin zitezkeen egoerak sortu baitira. Ikus-entzunezkoak sortzeko aukera asko ugaritu da eta horrek bere inguruan galdera asko sortu ditu, tartean gorde beharreko materiala zein den edo material horren gain zein eskubide dituen ikus-entzunezkoa gordetzen duen artxiboak. Galderak sortzeaz gain, dokumentatzeko aukera eta behar berriak sortu dira. Dokumentazio horren arabera ikerlari eta sortzaileek ikus-entzunezko material horretara iristeko aukera gehiago edo gutxiago izan dezakete gaur egungo teknologiek, internet tartean izanda, eskaintzen dituzten bitartekoekin.

Jon Baguesek eta Arantza Mariskalek irekitako bideari segida emanez, José Luis Mairek munduan zehar ikus-entzunezkoak katalogatzeko erabiltzen diren irizpide eta sistemen berri eman zuen. Konkretuki,

aurkezpenaren zabalera argitaratu gabeko materialera estutu zuen. Horrela, munduan zehar elkarte ezberdinek, tartean estatu indartsuetako gobernuek, beraien herrialdeetako kultura, folklore eta patrimonio ez materiala gordetzeko egin duten ahalginaren isla diren zenbait artxibotako adibideak azaldu zituen.

Bazkalondoan Labrit Multimediako Gaizka Arangurenen txanda izan zen. Aurreko hizlarien esperientzia museo, dokumentazio eta liburutegietan zentratuta bazegoen, honen kasuan ikus-entzunezkoen ekoizpenean aritzen den enpresa batekoa izan zen. Hauek ere elkarrizketa asko egin dituzte beraiek ekoizten dituzten dokumental edo era ezberdinetako produktuetarako materiala izateko eta bildutako guzti hori non jaso izaten da, aurreko hizlarien erakundeetan bezala, arazo handienetako bat.

Gaizkak planteatutako arazo horren inguruan joan zen nagusiki mahai ingurua, izan ere datuak biltegitratzea epe motzean zaila izan badaiteke, biltegitratutakoa epe luzera hondatu gabe mantentzea zailagoa baita.



Amaierako kontzertuan Andoitz Antzizar eta Joxe Lasa. SNN

Jardunaldien azkenengo eguna izan zen igandeko eguerdian kontzertua izan zen. Bertan Doinutegi proiektuan grabatuak izan diren abeslari eta soinuarietako batzuk aritu ziren giro apartean.

KONTZERTUAK SOINUENEAN

NEGUKO KONTZERTUA

2013ko abenduaren 28an - 18:30tan Soinuenean

**SARRERA
5 EURO**

OS MINHOTOS PINGA D'AUGA



OS MINHOTOS galiziar musika ulertzeko era berezi eta zehatz baten soinu emaitza da, lortutako eta sendotutakoa. Festen, kalejiren, ensaioen, ikerketen eta galiziar herri musikaren ausnarketatik sortzen den era da.

OS MINHOTOSek talde herrikoia-
ren estetika eta gustua harmonizazio klasikoekin elkartzen ditu gaiten hotsa eta perkusio herrikoia *zanfonaren* (zarrabetearen), eskusoinuaren, errekinaren eta klarinetearen tinbrearekin nahastuz. Bere erreper-
torioa zabala da eta egile musika herri musikarekin tartekatzen du.

OS MINHOTOS bost musikari galiziarrek beraien Herria den

Galiziako musikari dioten estimuaren emaitza da; gehigarririk gabe, ez forman ezta oinarrian ere.

OS MINHOTOS ondorengo musikariek osatzen dute :

•**Alberto Castro:** *Gaita, Pandeiroa, Pandeireta eta Bomboa.*

•**Bruno Villamor:** *Gaitak (Re, Do, Sol), Zanfona, Requinta, Pandeireta eta Tamboril.*

•**Paula Fernández:** Akordeoia.

•**Vitor Otero:** *Zanfona, Gaitak eta Perkusioak.*

•**Xaneco Tubío:** *Tamboril, Pandeiro, Pandeireta, Tixoletas eta Ferriño.*

EGITARAUA:

01. Alborada
02. A elas
03. Na eira
04. Currupia
05. Xota para Ramiro
06. O primeiro sono
07. Ano dourado
08. Cova nuada
09. Vals de Arousa
10. Sobresaínte
11. Cambeando
12. Mazurca de Bretoña

Neguko kontzertua Soinuenea - Herri Musikaren Txokoan AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariek egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen laguntzaileak:



BELTXAREN BIKOTEA

Tradiziozko kantua lege



Beltxaren bikotea 2008an sortu zuten **Lina Andueza** eta **Ana Telletxeak** kantariak. Iruñeko Ortzadar Euskal Folklore Elkarteko kideak dira biak, eta bikotearen sorburu den talde honetan ere parte-hartzen dute bestelako ikuskizunak eskainiz, dantza eta musikarekin batera.

Batak eta besteak ibilbide ezberdinak izanagatik ere, kantu tradizionala izan dute egiazko zaletasun eta iturri, bereziki, mendialdeko kantak. Ahots hutsez kantatzea gustatzen zaie, gaurko molde ohikoenetatik urrun; soiltasun horretan hitzaren eta bozaren ñabardurarik txikiena handi baita.

Kantu tradizionalaren saio intimoa bat eskaini ohi dute, batzuetan musikaz jantzita ere aurkezten dituztelarik agerraldiak. Bikote amateur honek asmo xumea du bere emanaldiekin; kantatzea zer-nola sentitzen eta goxatzen duten helarazi nahi diote entzuleari. Toki berezi eta kuttunetan aritzea gustatzen zaie, familia-giroa

hartzten duten horietan, kontzertu-estiloaren izaeragatik bereziki. Hainbat moldetako soinuak biltzen dituzte eta bi solas ere bai, haien gainean; nagusiki, kantatzeak bere baitan duen esanahiaz gogoeta egiteko. Irakasleak izaki biak, nahigabeko izaera didaktiko ttikia ere ematen diote saioari.

Kontzertu honetarako kanta-modu ezberdinak bildu dituzte erakusgarri koloretsua egiteko.

Gai anitz, bitxikeriaren bat edo beste, emakumeen antzinako usadio bat... oro har, ahozko tradizioak utzitako uzta ederrean barnako ibilbide goxoa egin nahi dute, Soinuenean aritzeko bereziki prestatutakoa. Kantua ahots hutsez emanen dute,

hizkuntzarekin eta ondarearekin zuzenki bat egiteko modua izan dezagun denek.

EGITARAUA:

01. Argizagiak
02. Kanthoreak
03. Oihanian
04. Jançu Janto
05. San Juan Kantaita
06. Bi haur Etxahunen hilobian
07. Adizan Grabiela
08. Mila zortziehun
hemeretzi
09. Gazte girade gazte
10. Bortian Ahüzki

HAUR eta FAMILIENTZAT KONTZERTU DIDAKTIKOA

OS MINHOTOS

Lekua: Soinuenea
Ergoien auzoa
20180 Oiartzun

Eguna: 2013-12-28

Ordua: 11:30

EUSKAL MUSIKA BELGIKAN

Azaroaren 23an hasi eta abenduaren 4a arte Soinuenearekin lotura zuzena duen Ander Barrenetxea, Andoitz Antzizar eta Juan Mari Beltranek osatutako musikari hirukotea izan da Belgikan. Etxepare Euskal Institutuak eta Brusela-Valoniako Jeunesses Musicales Federazioak elkarrekin antolatu duten *Fenêtre Ouverte sur le Pays Basque* programaren barruan 30 ekitaldi eman dituzte Bruselako eta Valoniako eskola, kontserbatorio eta kultur gune ezberdinetan. Ekitaldi hauetako batzuk kontzertuak izan diren artean beste batzuk sarrerako ikastaroak izan dira, Belgikako gaztetxoei euskal herri musika ezagutzeko eta bereziki txalaparta ikasteko aukera emanez.



Azaroaren 28 eskolan tailerra eman zuten. SNN



Abenduaren 14an Arditurrin. SNN

HERRI MUSIKA ESKOLA ARDITURRIN

Oiartzungo HM Eskolak herrian urtean zehar antolatzen diren ekitaldietan musikarekin parte hartzeko izan duen asmoarekin jarraitzen du. Horren harira, lehengo azaroaren 23an Aiako Harriaren magalean dagoen meategia izandako Arditurrin prestatu zen txondorraren piztueran eta ondoren abenduaren 14an ikatza ateratzeko Gipuzkoako Parketxeen Sareak eta Oiartzungo Udalak elkarlanean antolatu zuten festan izan ziren eskolako dultzainero eta danbor joleak.

Hori gutxi ez eta toberak ere jo zituzten lehen usadioa zen bezala bertsolari batek tobera joaldien artean koplak kantatzen zituen artean.

Bi egun horietako egitarauaren barne izan ziren Abaraxkak zuzendutako haur jolasak eta aurreko urtean egin zen txondorraren inguruan gertatukoak biltzen zituen bideoaren emanaldia ere.

URTEKO BALANTZEA

Konturatu orduko urtea pasa da eta zer moduzkoa izan den esateko orduan ontzat eman beharrean gaude. Alde batetik, bisitari kopurua mantentzeaz gain pixka bat igo egin da.. Eta bestetik, urtean zehar antolatu ditugun kontzertu, jardunaldi eta bestelako ekintzak orokorrean arrakastatsuak izan direla uste dugu.

Bisitarietara dagokionean, hauen gehiengoa ikastetxeetatik etortzen diren ikasleak dira. Gipuzkoa eta Bizkaian dute nagusiki jatorria ikasle hauek. Hala ere, poliki-poliki bada ere, orduan eta ugariagoak dira Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoako ikastetxeetatik etortzen diren bisitak.

Urtean zehar antolatzen ditugun ekitaldien artean aipamen berezia merezi dute kontzertuek. Sasoi bakoitzerako kontzertu bat antolatuz jarraitu dugu. Hauen iraupenak eta helduen beharrik haurren etatik ezberdinak direla kontuan hartuz goizetan txikienei eta bere ingurukoei begira iaz martxan jarri zen kontzertu didaktikoekin jarraitu dugu eta izaten duten jarraipenarekin oso pozik gaudela esan behar dugu.



Xanistebanetan Arozenatarrekin erromeria. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 605

Antolatutako taldeak: 23

Bisitari kopurua abendua arte: 38658

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16747

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.org

www.soinuenea.org

